BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

3858

AGINDUA, 2011ko uztailaren 4koa, Osasun eta Kontsumoko sailburuarena, Lasarte-Oriako farmazia-eskualdearen sailkapena aldatzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoan Farmaziak Antolatzeari buruzko ekainaren 17ko 11/1994 Legearen 10. artikuluak hiru farmazia-eskualde mota ezartzen ditu, udalerrian dauden osasun-eskualdeen arabera edo alderantziz, 11.3 artikuluan aurreikusitako salbuespenarekin.

Hauxe da salbuespena: osasun-eskualdeak osorik edo zati batean barnean hartzen baditu udalerri batzuk, osasun-eskualdearen mugartea hartuko da farmazia-eskualdetzat –legearen 10. artikulua, c) atala–, salbu eta udalerrietako batean biztanle guztien % 75 bizi badira; kasu horretan, farmazia-eskualdea 10 artikuluko b) atalekoen artean sailkatuko da («osasun-eskualde batean udalerri bakar bat osorik sartzen bada, farmazia-eskualdea guztiz bat etorriko da osasun-eskualdearekin eta udalerriarekin»).

Halakoxea da Lasarte-Oriako farmazia-eskualdea: Lasarte-Oriako eta Usurbilgo udalerriek osatzen dute eta farmazia-eskualdeko biztanleen % 75 Lasarte-Orian bizi da. Hori dela eta, farmazia-eskualdeen sailkapena eta eskualde horietan dauden udalerriak zein diren iragartzeko den Osasuneko sailburuaren 2002ko abenduaren 5eko Aginduak 19. zenbakia eman zion Lasarte-Oriako farmazia-eskualdeari, legearen 10.1.b) artikuluan agertzen den sailkapenean.

Gaiarekin zerikusia duten udalerriek eta Estatuko Estatistika Institutuak emandako populazio-datuek, ordea, agerian uzten dute kontzentrazio-egoera aldatu egin dela eta Lasarte-Oriako udalerrian ez dela bizi farmazia-eskualdeko populazioaren % 75. Horregatik, bere sailkapena aldatu beharra dago.

Horiek horrela, hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Farmazia-eskualdeen sailkapena eta eskualde horietan dauden udalerriak zein diren iragartzeko den Osasuneko sailburuaren 2002ko abenduaren 5eko Agindua aldatzea: eranskinaren B) atalaren 19. zenbakia kenduko da eta C) atalaren 17 bis) atala gehituko da, 11/1994 Legearen 10.1.c) artikuluko farmazia-eskualdeei dagokiena. Honela geratuko da idatzirik:

17 bis) Farmazia-eskualdea: Lasarte-Oria, zeinek udalerri hauek hartzen dituen barnean:

– Lasarte-Oria.

– Usurbil.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 4a.

Osasun eta Kontsumoko sailburua,
JAVIER RAFAEL BENGOA RENTERÍA.